



HIZTEGIA

EUSKARAZKO NEOLOGISMO ETA TERMINOLOGIAREN INGURUAN

1976-I-2

X. Mendiguren

Euskaltzaindiaren azken lanbileran irakurri nuen txostenaren hildotik, eta bertan aipatzen nuen "d" puntuari hurbi-lagotik helduz, zientzia eta gai desberdinetako euskal terminologiak planteatzen digun zenbait arazori buruz proposamen batzu egin nahi nituzke.

Norbaitek espero lezakeenez kontrara, ez naiz neologismoei buruzko hizkuntz erizpide kontutan sartuko. Ba da gai horretan ni baino eskudunagorik eta hizkuntzalariari bere egitekoaren zama utzirik, ni neu eguneroko praxiaren aldetik ikusten ditudan gorabehera batzuz arituko natzaizue.

Azken hamar-hamabost urte honetan entsegu edo saiakera, artikulu espezializatu samarrak, era guztietako itzulpenak, irakaskuntzarako textuak e.a. eurrez agertu dira eta euskara gaurreguneko premien mailara jasotze lan honetan, ahalegin handi bat burutu da neologismo eta terminologigintzan. Dena legezko urre ez baldin bada ere, oro har, behialako terminologia hura baino iraunkorragoa eta etorkizun hobekoa izango delakoan nago. Euskaltzaindiak berak ere ez dio erabat musin egin elkarlan honetan parte hartzeari, "Zortzi urte arteko haurren hiztegia", "Merkatalgo izendegia" e.a. lekuko.

Hala ere, ahalegin eskerga honen fruitua aski barreiatu-rik dago enziklopedia, liburu, aldizkari eta horritan zehar eta ezina edota ezinaren hurrengo gertatzen zaigu gisa honetako lanetan sarturik gabiltzanoi —aipaturiko terminologia horretaz guti asko baliatu behar izaten dugunoi— oraindainokoa eman izan diren urrats guztien berri izatea. Eta jakina, batzutan informazio ezagatik, lehenago beste norbaitek sortutako hitz berriez gainera, beste batzu sortzeari ekiten diogu, bitasunak ez ezik, hirutasunak eta lautasunak sortuz. Noizbehinka aurrekoen markak ondu ere ontzen dira, baina sarritan nahaspideak areagotzea besterik ez da lortzen. Bestalde, hizkuntzalari trebe izatea ere ez dgo edonoren eskutan eta hautakizunen aurrez aurre, nolabaiteko erizpidez baliatzen gara eta hizkuntzari hizkuntzarena ukatzen ez diogunean zientziari zientziarena ukatzen diogu, hots, nori berea eman ez ibiltzea eskatzen duen zuzenbidetik nekez ibili ohi gara.

Mitxelena jaunak oraintsu gogorazi digunez, Euskaltzaindia ere "bat bitan banatua" delarik, nik ez dakit beronen zein alderdiri dagokion hemen aipatu ditudanok kontutuan hartzea eta ahal den neurrian erremediobidean jartzea. Dena den, euskarari dagokionean, etorkizunean baino ekarkizunean gehiago sinesten dugunon izenean, argigarri edo lagungarri gerta litezkeelakoan, proposamen batzu egitera ausartzen naiz:

Ene ustez, Euskaltzaindiak berak burutu edota bultzatu beharreko eginkizunak lirarteke ondorengo hauk:

a) Euskal editorialetxe edo euskal liburu bildumen arduradunekin, euskal textugintzako talde teknikoekin, aldizkari zuzendariekin, e.a. harremanetan jarri eta terminologi bilketa eredu bat proposatu beharko luke.

b) Pertsona egokiren bat hautatu beharko luke Euskaltzaindiak lan honetan eragile izan dadin, eta eginkizun hau burutzeko beharrezkoak diren bitarteko eta laguntasuna bilatzen ahalegindu beharko luke.

Agian, hizkuntzalariz eta zientzi alor desberdinetako jende adituz osoturiko kontseiluren bat beharko luke inguruan, linguistikazko garantia ez ezik zientziazkoa ere izan dezan lan horrek.

c) Oraindainoko terminologiaren eta neologismoen biltze sistematiko bat egin ondoren, galbahetu eta forma egokien edo gomendagarrien proposamena egin beharko litzateke.

d) Hitz zerrenda horik textuinguru egokitan eta oharrez horniturik, argitara ematearen ardura hartu beharko luke Euskaltzaindiak bere gain; horretara idazle, textugile, euskaratzaile, irakasle eta editorialetako zuzentzaileen eskutara hel daitezten.

e) Hitz berriak sortzea guztion zeregina —idazleona bati-pat— bada ere, lehen aipatutako eragileak eta beronen kontseiluak eginkizun garrantzitsu bat dute honetan: informazio zehatz eta iraunkor bat eskuratzearena eta bide bat gomendatzearena.

Hemen aipatu ditudan puntu hauentzat zailtasun bat baino gehiago sortuko da agian. Zenbaitek beste era batetara ikusiko ditu gauzak eta agian, beste bide batzu proposatuko dizkio gaurko euskararen hazkunderari. Nik neuk, egia esan, proposamen konkretu hauei baino balio handiagoa eman nahi nioke arazoaren planteaketa soilari. Hala ere, haikunde hutsaletan gal ez gaitezen, soluziobide jakin batzu proposatzeari derriorezko eritzi diot. Proposamen hau ez dut egin Euskaltzaindia inolako agintekeriatan sar dadin, baizik eta egunetik egunera areagotzen ari den kaos bati argibideak eman diezaizkion, eta batez ere irakaskuntzaren inguruan lanean ari diren guztiei behar-beharrezko laguntasun bat eman diezaien. Hemendik urte batzutara zer gerta litekeen ez dakigu, eta orduan zer egingo dugun ere ez zaigu gehiegi axola.

Gaurko egoerari erantzunen bat ematea beharrezkoa dugu, eta Euskaltzaindia da erantzukizun hau bere gain hartu behar duena, ene ustetan. Nik neuk, textugintzan, kazetari-tzan, itzulpenak egiten eta ikastolan gabiltzanon mundua ezagutzen dudak neurrian —eta aski ongi ezagutzen dudalakoan nago— goitik beharrezko inposamen ez baina, bihotzez eskertuko genukeen laguntasuna izango litzatekeela aitortzera ausartzen naiz.